

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

328 - 2024ko URRIA

TRADIZIOA BIZIBERRITZEKO,  
BELARRAREN EBAKIA



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

# ZUZEN ETA JATOR

## **\*BI ASTERO EDO BI ASTETIK BEHIN?**

Maiztasuna adierazteko egituren artean, <izena + -ero> gisako esamoldea da onartzekoa: astero, hilerro, urtero, ordu laurdenero...

Ez da egokia, ordea, <zenbatzailea + izena + -ero> erabiltzea: **\*bi urtero**, **\*hamabost egunero**, **\*lau astero**...

- ▶ **\*Bi egunero joaten naiz euskaltegira** (> Bi egunetik behin).
- ▶ **\*Pastilla 12 orduero hartu behar du** (> 12 orduetik behin/orduan behin).
- ▶ **\*Hamabost egunero etortzen da bisitan** (> Hamabostero/hamabostean behin).

Halaber, ez da zuzena \*zenbatero erabiltzea:

- ▶ **\*Zenbatero joaten zara euskaltegira?** (> Zenbatetan/zenbatetik behin).

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. [issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Adur Cobos Huarte, Ana Telletxea, Anne Oreja, Aitor Irastortza, Beatriz Blas, Betelu Futbol Taldea, Bilbao Disc Golf Club, Bernar Azpirotz, Eider Martirena, Eneritz Urkola, Idoia Igoa, Juanjo Zubieta, Mattie Garaiakoetxea eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103

- [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

02

ZUZEN ETA JATOR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE

Arribe-Elosta-Arribe (Elostako Narratik)

08

ELKARRIZKETA

Izaskun Iparragirre  
Baleztena (Lekunberri)



12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA

"Txondorra sortzeak, komunitatearen elkarlana bermatu du" Juanjo Zubieta eta Javier Irigoien (Lekunberri)




18

KULTURA

22

ERREPORTAJETXOA

Araizko kablearen eguna



24

KIROLA

Betelu Futbol Taldeak urte borobila



28

PLAZATIK PLAZARA

"Abereen kudeaketa eraginkorrak, landa-ekonomia indartu dezake"



31

AGENDA





**Maren Prados Aldasoro**  
Urriaren 8an,  
urte 1. Zorionak,  
etxekoan partez,  
politte! Muxu  
potolo bat!



**Naiara Uranga Gaztelumendi**  
Irailaren 18an, 5  
urte! Zorionak,  
printzesa! Beti  
bezain alai,  
irribarretsu eta eder  
jarrai dezazun! Pila  
bat maite zaitugu!  
Aimar, aita eta ama.




**Aihen Eleta Egaña**  
Urriaren 8an, 4 urte.  
Zorionak, Maitia!!! 4  
urte! Ze handia. Muxu  
handi bat etxekoan  
partez!




**Aner Elordi Saralegi**  
Urriaren 26an, 5 urte.  
Zorionak gizontxo!  
Ongi pasa zure  
egunean! Besarkada  
handi bat etxeko  
guztien partez!

**Jone Castrillo Cruz**  
Urriaren 23an, 16  
urte. Zorionak, Jone!  
Atallutik 16 muxu.



**Xabi Mindegia Urrestarazu**  
Urriaren 30ean, 5 urte! Zorionak,  
Xabi! Ongi pasa zure egunean!  
Muxu handi bat etxeko guztien  
partetik!



**Gari Arraztio Eztanga eta  
Aiara Arraztio Estanga**  
Garik, urriaren 3an, 8 urte.  
Aiarak, urriaren 27an, 11  
urte. Zorionak, bikote! Ongi  
pasa zuen egunetan! Muxu  
handi bat familia guztiaren  
partez!


**Urko Agirrezabala Valencia**  
Urriak 8an, 8 urte. Zorionak, Urko!  
Jarraitu bizitzaz gozaten zuk  
dakizun bezala. Maite zaitugu.



**Aiur Goikoetxea  
Martirena**  
Urriaren 31n, 4 urte.  
Zorionak, pottoko!  
Segi horrela, beti  
bezain irrifartsu  
bizitzaz gozaten.  
Egun polita pasa.  
Muxu erraldoi bat  
etxekoan partez.



**Lorea Ilargi  
Goikoetxea  
Agirrebarrena**  
Irailak 23an, 8 urte.  
Zorionak, Lorea urte  
askotako! Maite  
zaitugu, jarraitu hain  
jator!



**Nahia Goikoetxea Ilarregui**  
Urriaren 8an, 3 urte betetzen  
ditu etxeko sorginak. Egun  
zoragarria izan. Maite  
zaitugun guztien partez!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren  
20a baino lehen.



## INDARKERIA MATXISTA GEHIAGORIK EZ

Irailaren 11ean erailketa matxista bat gertatu zen Bilbon. Hurrengo egunetan, Arribeko Surtidorean eta Larraungo Udaletxean, elkarretaratzeak egin ziren. Erailketa matxistaren aurka, herritarrak elkartasuna eta gaitzespena adierazteko elkartu ziren.



## IRAKURLE-TALDEA MITXAUSENEAN

Euskaraz irakurri nahi? Irakurtzeko gogoia eta ohitura bultzatzeko asmoarekin, Lekunberriko liburutegi publikoan irakurle taldea osatu zen 2023. urtean eta ikasturte berriarekin batera hasi dira partaideak Mitxausenean elkartzen. Taldean parte hartu nahi duzu? Eskatu informazioa:  
-Helbidea: mitxausenea.kultura@gmail.com -Telefonoa: 948 60 45 82  
Parte hartzeko ez dago irakurle zalea izan beharrik; anima zaitetz.



## LEKUNBERRI ETA LARRAUNJO JUBILOTEKA ABIAN DA

Larraungo eta Lekunberriko Jubilotekan, adineko jendeak ongi pasatzeko hainbat jardura antolatu dira. Parte-hartzaileek eskulan tailerrak, jolasak, gorputz hezkuntzako jarduerak, memoria ariketak eta irakurketa saioak izango dituzte, besteak beste. Espazio honek, denbora-pasa dibertigarriak eskaintzeaz gain, herritarren parte-hartzea sustatzen du.

-Informazio gehiago Lekunberriko Udaletxean: 948 504 211

## ► Lekunberri-Larraungo Eskola Publikoa



Jaiotzez Astigarragakoa den Marilo Rotetak, dagoeneko 24 urte igaro ditu Lekunberri-Larraungo Eskola Publikoan lanean. Ikastetxeko jantokiko monitorea izan da urte hauetan guztietan, eta irribarre, algara eta loreen artean, erretiratzeko garaia iritsi da. Horregatik, Ibarberri ikastetxeko lankideek bertso hau sortu dute, egindako lan guztia eskertzeko.

*Urte askoz lankide  
izan zaituguna  
egunero eskolan  
zintzoki jarduna.  
Lanerako gogoia  
ta prestutasuna  
erakutsi ondoren  
heldu da eguna...  
Goza dezazun ongi  
merezi duzuna.  
Jaso gure eskerra  
eta maitasuna.*

*Zorionak, Marilo!*

*Marilorentzat, Lekunberri-Larraungo Eskola Publikoaren partez.*

## IRAILAREN 27AREN HARIRA

Dagoeneko berrogeita bederatzita urte dira Txiki eta Otaegi, beste militante batzuekin batera, hiltzorian zegoen erregimen frankistak fusilatu zituenetik.

1975ean, ehunka kilometrora zegoen irrintzia entzun genuen, askatasun haizea zela esaten zuena, gure herriaren aldeko oihu ozena, borrokarako deia. Bost hamarkada pasatu dira dagoeneko fusilamendu haietatik; baina heriotza horiekin ez zuten bost bizitza segatzea bukatzen soilik: Euskal Herriaren aldeko ametsa zen ito nahi zutena, erauzi nahi zutena.

Borrokalari abertzale eta antifaxista horien ondotik, beste hamarnaka, ehunka, milaka lagun izan dira independentziaren, sozialismoaren eta feminismoaren aldeko borrokara batu direnak. Hamarnaka, ehunka, milaka izan gara Euskal Herria eraikitzen jarraitu dugunak eta jarraitzen dugunak, eraldaketaren alde borrokatzen garenak.

Gaur ere, irrintzi bat dabil, irrintzi hura guganaino iritsi da. Eta ez dira gutxi ditugun erronkak. Izan ere, euskal preso, iheslari eta deportatu politiko guztiak etxean izan arte, borrokan jarraituko dugu. Izan ere, atzoko eta gaurko erreakzioaren aurkako borroka antifaxista eta eraldatzailea da gurea. Izan ere, askatasunaren haizea aldatetaren haizea ere bada, eta atzo bezala, gaur, hamaika dira gure lurraren eta herriaren aldeko borrokan aritzen diren lagun eta kideak, euskal errepublikaren eraikuntzan aritzen direnak, egunegun.

“Borrokari, luza zaidan eskua, hona hemen nerea zabalik”, idatzi zuen Telesforo Monzonek. Ukabil itxiaren eta esku zabalarena da gure hamarkadako borroka hau. Umila, eskuzabala eta iraultzailea. Borroka eta amets batek elkartu gaitu eta askatasun haizeak ereiten jarraituko dugu gaur ere.

Euskal Herri askea helburu, ortzimuga eta amets, jarrai dezagun, urtero bezala, bulkada nazional eta soziala hauspotzen. Euskal errepublikarantz, gaur, atzo bezala, irrintzi bat dabil.

Herrietako deialdietan ikusiko dugu elkar!

**IRUÑEA:** Manifestazioa O plazatik hasita, 19:00etan.

**ALTSASU:** ekitaldia Baratzako Bide plazan 18:30etan.

**ELIZONDO:** ekitaldia Ahaztuen plazan 19:00etan.

**TAFALLA:** ekitaldia Monolitoan 19:30etan.

**LEITZA:** ekitaldia Euskal Herria plazan 19:30etan.

**LIZARRA:** ekitaldia Santiago plazan 20:00etan..

**Lur Albizu Etxetxipia**  
(Sortuko Nafarroa Garaiko arduradun politikoa)  
Sareetan: @LurAlbizu eta @SortuNafarroa

**AMAIURU BAR**  
ETXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK  
948504352

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antzonia.com  
Utegi (Araitz)

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO  
Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisi@hotmail.com



**CONSTRUCCIONES**  
EIRA KUNTZAK  
**CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.**



TEILATUAK  
FATXADAK  
EIRA KINEN ZAHARBERRITZEA  
665 708 683  
Lekunberri

**Construcciones Gañarbe**  
ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK  
Oztegin kalea 2, Lekunberri  
construccionesganarbe@gmail.com  
616 457 540  
636 827 846

Hurrengoa:

Alaitz Olano Sotil (Betelu)



**Mattie Garaikoetxea  
Zubillaga (Betelu)**

# maite ditut maite gure bazterrak

## ARRIBE – ELOSTA – ARRIBE (Elostako Narratik)

**Ibilbidea:** zirkularra  
**Distantzia:** 6km  
**Desnibela:** 600 m  
**Zailtasuna:** erdi mailakoa

### Zergatik aukeratu dut?

Bailaratik Elostara igotzeko beste bide bat da, distantzia motzean desnibel dezente duena. Elostara pareko malkorretatik igotzen denez, egokia da igotzeko (lehorra dagoenean); baina ez, ordea, jaisteko. Ez agian hain aproposa bertigoa dutenentzako.

### Bidea:

- 1 Hasteko, Arribeko Orellako zubia zeharkatuta dagoen pistatik zuzen joango gara, aldapan gora Perraiaagaraino.
- 2 Perraiaagako langa igarota, eskuinerantz pistan gora jarraituko dugu, Arribe eta Betelu arteko antena eskuinetan uzten dugula. Azken bide gurutzean, antenarako bidera hartu ordez, ezkerretara pasako dugu langa.
- 3 Kondetxeko bordaren azpitik igaroko gara langa pasa eta 100 bat metrora. Xendari jarraituko diogu beti goranzko bidea hartuz, Elostako narrara edo malkorretara gerturatu arte.
- 4 Malkorrek parean ditugunean, zuzen jarraitu behar dugu gora, Elostara gainera iritsi eta pagadian sartu arte.
- 5 Pagadian aurrera eta pixka bat ezkererantz jarraituko dugu, Gorritira doan pistarekin topatu arte. Langa pasa, eta beheko bidegurutzeraino joango gara pistatik. Bertan, ezkerretara hartuko dugu, azken langa bat pasata bailarara jaisten den bidea zuzen hartzeko.
- 6 Berriz ere Elostako Pagadian sartuko gara, bidea jarraituz Arribeko Sasainera jaitsi arte. Bidea jarraitzen badugu, ezkerretara Arriberantz doan pista aurkituko dugu, eliza atzeraino eramango gaituena.

7



## “Minbiziak bizitza guztiz aldatu zidan, eta orain, momentua bizitzen ikasi dut”

Minbiziaren gaixotasunak, bizitzari buruz sakon hausnartzeko bidea eman zion Lekunberrin bizi den Izaskun Iparragirre Baleztena leitzarrari. Horrek bultzatuta sortu zuen “2ZI” marka. Orain arte, marka horretako jertse, kamiseta, poltsak eta berak egindako belarritako eta lepokoak saldu ditu. Irabazi osoa, bularreko minbiziaren Saray elkartera bideratu du.

Egun, beste proiektu potolo batean murgilduta dago, honetan ere, berak bizitu duen bularreko minbiziarekin lotuta. “2ZI” egun, bere marka izate-tik, elkartea izatera pasa da eta horrek dakartzan lanetan jarduten du. Urriaren 18an Leitzako zinema aretoan estreinatuko den “Bularretik ehundutako aitortzak” dokumentalean parte hartu du Izaskunek eta horrez gain, urriaren 19an Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna delarik, Leitzan ospatuko den egun solidarioa prestatzen ari da. Festa giroan murgilduta, ekintza ezberdinez osatutako egitaraua osatu dute. Porrotx pailazoak ere, bere elkartasuna adierazteko, irailaren 18an kontzertu solidarioa eman zuen Leitzako zinema aretoan.

*“2ZI nire marka propioa atera nuen, 2ZItzeak niregan zuen aldarriarekin, bizitzeko nuen indarretik”*

### **Zein da Izaskun?**

Gaixotasunak bizitzaren ikuspegia aldatu eta etorkizuna modu desberdinean ikusiz, momentua eta epe motza baloratu eta aprobeztatzen duen Lekunberrin bizi den leitzarra.

### **Zerk aldatu zizun bizitzarekiko ikuspuntua?**

Minbiziak... 2021eko azaroan iritsi zitzaidan diagnostikoa. Barrua guztiz astindu eta egun batetik bestera, bizitza nola alda daitekeen lehenengo pertsonan bizitu nuen.

### **Egun, zer moduz zaude?**

“Teorikoki” minbizia sendatutzat ematen den arren, “guztiz” sendatua, tratamenduarekin bukatu ostean izanzen litzateke. Egun, 5 urtez, egunero hartzen dudana tratamendua dut, horrek sortzen dituen albo ondorio guztiekin.





### Minbiziarekin zeundela, proiektu berri bati eman zenion hasiera...

Hori da... minbiziak oso sakon hausnartzera eraman ninduen, nire bizitza hankaz gora jarri zuen gaixotasunak. Momentua eta bizitza bere osotasunean nola bizi eta aprobetxatzen nituen hausnartzeko balio izan zidan. Egun batetik bestera alda daitekeen bizitza, gertuan nuena beste modu batera ikusten, beste modu batera baloratzen, orain arte baloratzen ez nituen bezala. Hortik eta lanketa sakon baten ostean, "2ZI" nire marka propioa atera nuen, "2ZItzeak" niregan zuen aldarriarekin, bizitzeko nuen indarretik.

### Zertan zetzan "2ZI" konkretuki?

Nire bizitzeko gogo eta grina, momentua bizitzeko nuen indarra adierazten zuen marka izena da "2ZI". Marka horretako jertse, kamiseta eta poltsak saltzen nituen eta baita nik

### "Elkartea sortu dugu, eta elkartearen izena 2ZI da"

sortutako belarritako eta lepokoak ere. Gaixotasun honek sortzen dituen albo ondorioetan lagundu ahal izateko, nire aletxoak jartzen ahalegindu naiz eta salmentaren irabazi osoa, bularreko minbiziaren Saray elkartera bideratzen nuen.

### Baina "2ZI" markak, beste bilakera bat izan du, ezta?

Hori da, marka pertsonala izatetik elkarte izatera pasa da. Elkarte sortu dugu eta elkartearen izena da "2ZI" gaur egun.

### Horrelako ekimenak beharrezkoak ikusi, eta ez zara soilik horretan gelditu... zertan zabiltza orain?

Alde batetik, bularreko minbizi-

ren inguruko dokumental bateko protagonistetako bat naiz, non nire esperientziaren testigantzak adierazten ditudan eta bestalde, bularreko minbiziaren nazioarteko eguna aprobetxatuz, festa egun solidarioa antolatzen ari gara.

### Proiektu potoloa dirudi... nolatan erabaki duzu dokumentalean parte hartzea?

Nire ahizpa da proiektuaren sortzailea, berak luzatu zidan dokumentalean parte hartzeko gonbidapena, eta ez nuen zalantzarik egin bidalgun izan nahi nuela. Egun, gaixotasunaz gehiago hitz egiten den arren, honetaz hitz egitea, ikusgarritasuna ematea, nire edo gure (dokumentaleko besteak) esperientziak nolakoak izan diren adieraztea... jende askori lagun diezaiegegula pentsatzen dut. Oso prozesu polita izaten ari da.

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKAK

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologoa  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpainenetan  
Mikroblading bekainenetan



Izaskunek egindako belarritakoak

*“Minbiziak, oso sakon hausnartzera eramán ninduen, nire bizitza hankaz gora jarri zuen gaixotasunak”*

**Noiz eta non ikus dezakegu dokumentala?**

Urriaren 18an, Leitzako Herri Aretoan (zineman) izanen da estreinaldia. 2 emanaldi eginen dira, 18:00etan lehena eta 20:00etan bigarrena. Bigarrenengo emanaldian, 20:00etan proiektioaz gain, aurkezpen ekitaldia ere eginen da. Oso ekitaldi polita prestatu dugu, baina ez dizuet gauza gehiagorik aurreratuko, nahiago dut egunean ikustea...

**Egun solidarioa prestatzen ari zaretela ere aipatu duzu...**

Bai, urriaren 19an “Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna” delarik, egun horretarako, funtsa bilketa egun solidarioa antolatu dugu Leitzan. Egun osorako festa giroan murgildutako egitaraua antolatu dugu.

**Horrelako ekimenak beharrezkoak direla uste duzu, zein da honen guztiaren helburua?**

Laburbilduta, pare bat helburu nagusi; gure testigantza ikusgarritasunarekin, prozesuan dauden pazienteei eta familiei laguntzea eta honetatik guztitik biltzen den diru funtsaren dohaintzarekin, “bularreko minbizi metastasikoa” ikertzen eta



**TALLERES GOÑI**  
TALLERRAK




- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Harremanetan jartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko:

- ▶ Helbide elektronikoa: **2zi@2zi.es**
- ▶ Instagram: **@2zielkartea**
- ▶ Dokumentaleko sarrerak salgai: **Leitzako Maimur, Peritza eta Erosleko harategian.**



Dokumentalaren une bat

finantzatzen laguntzeko gure aletxoa jartzea. Horrelako ekimenak beharrezkoak direla uste dut, ez bakarrik ikerketarako, ikertuta dauden hainbat tratamendu finantzatzeko ere.

### **Beraz, irabazi asmorik ez duen proiektu potolo batean sartuta zaude buru belarri?**

Hori da, ekimen honekin guztiarekin biltzen den diru guztia, bularreko minbizi metastasikoa ikertu eta finantzatzera bideratuko da.

### **Nola parte hartu dezakegu zuen proiektuarekin?**

3 modutan parte hartu daiteke gure proiektuarekin, urriaren 18an dokumentalaren estreinaldiarekin, urriaren 19an festa egun solidarioan parte hartuz eta elkarteko kontu korrontera dohaintza eginez.

*“Horrelako ekimenak beharrezkoak direla uste dut, ez bakarrik ikerketarako, ikertuta dauden hainbat tratamendu finantzatzeko ere”*

### **Erantsiko zenukeen zerbait?**

Lehenik, urriaren 18an eta 19an Leitzara joateko gonbidapena egitea gustatuko litzaidake. Bestalde, eskerrak eman horrelako ekimen baten antolatzailea izateagatik zoriondu eta eskerrak ematera gerturatu zaizkidan guztiei. Eskerrak eman laguntzeko borondatea izan duten guztiei, gure proiektuarekin bat egin duten guztiei, gugan sinetsi eta hau guztia beharrezkoa dela adierazi duten guztiei. Jendea oso eskuzabala izaten ari da eta lortzen ari garenaz, oso pozik eta harro gaude.

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.  
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**German Lasarte HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**SAN MIGUEL gasolindegia**  
Xabier Garmendia: 629 350 099  
Ambe-Atalla

**urrutia enea**  
etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**



### ▶ KALE ANTZERKIA UZTEGIN

Irailak 14, Uztegin, Lorena Arangoak "Jazinta, la Potra" antzerkia eskaini zuen, Araitz-Beteluko Erasoen Kontrako mahaiak antolatuta. Kaleko ikuskizuna, pertsona guztiei zuzendua izan zen. Emakumeek landa-eremuan duten nortasuna, garrantzia eta indarra aldarrikatu zituzten bertan. 50 lagun inguru elkartu ziren eta giro zoragarria osatu zen barre eta algara artean.



### ▶ EGOERA BIDEGABEA BETELUKO JANTOKIAN

Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen eskualdeko jantokietan gehienezko kuota 7,5 eurokoa da, baina Beteluko familiek 13,12 euro ordaindu beharko dituzte, herriak 1.500 biztanle baino gutxiago dituelako. Jantokia, ikasleen heziketarako gunea izateaz gain, lana eta familien egoera desberdinak errazteko funtsezko baliabidea da. Horregatik, Beteluko familiak elkartu, eta jangelako prezioa murriztea eskatzen dute, egoera bidegabeari amaiera emateko. Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bertaratu ziren guztiei eta Adur Cobos Huarte argazkilarari.

### ZALDIEKIN DANTZATZEKO AUKERA INTZAN

Raquel Villaresek urriaren 18tik 20ra, "Zaldiekin dantzatzu" ikastaroa eskainiko du Equino Aukeran, Intzan, Araitz ibarrean. Villares, etologoa eta amazona da, eta Etologia Sentsitiboa izeneko metodologia berritzailea garatu du. Zaldiekin sakonago konektatzen irakastea da helburu, gorputza eta dantza komunikazio tresna gisa erabiltzen ditu. Raquelek animaliarekiko errespetuan eta enpatian oinarritutako elkarrekintza sustatzen du, zaldientzat zein parte hartzaileentzat esperientzia paregabea eskainiz.

-Informazio gehiago nahi baduzu, idatzi hurrengo helbide elektronikora: [equinoaukera@gmail.com](mailto:equinoaukera@gmail.com)





## KAÑA FEST II PRINTZAN

Bigarren urtea da Printzak Kaña Fest antolatzen duela. Aurreko urtean Ibarberri Eskola Publikoko frontoian egin zen, baina aurten, Printza barruan ospatu da. Irailaren 21ean izan zen ekitaldia, eta bertan; *Mendeku Iruñerria*, *The Blackening* eta *Lepora* musika talde indartsuak entzuteko aukera zoragarria izan zen.



## NAFAR SAGARDO EGUNA HEMEN DA

Irailaren 29an ospatu zen Nafar Sagardo Eguna Lekunberriko enparantzán. Goiz guztian zehar sagardo azoka, erakusketa eta dastaketa izan zen, sagar mota ezberdinak ikusteko aukerarekin. Horretaz gain, artisauen postuak ere egon ziren, eta ondoren, Kirikoketa ospatu zen, sagarraren txikitzea ikusi eta txalapartaren erritmoan goiza ederki amaitu zen.

## MINTZALAGUNAK MARTXAN DIRA DAGOENEO

Euskara praktikatu nahi duzu? Oso erraza da, eta doan!  
Praktikatu euskara giro atseginean, zuk aukeratu noiz eta nola. Mintzakidek hamaika aukera eskaintzen ditu: tailerrak, txangoak, emanaldiak, mintzodromoak... Gainera, hilero-hilero opari kutxen zozketa eta harpidetza deskontuak izanen dira!

- Xehetasun gehiago lortzeko edo izena emateko:
- Helbide elektronikoa: [larraun@aek.eus](mailto:larraun@aek.eus)
- Telefono zenbakia: 607622102
- QR kodea:



●● Juanjo Zubieta eta Javier Irigoien (Lekunberri)

## “Txondorra sortzeak, komunitatearen elkarlana bermatu du”

*Eskualdeko tradizio zahar eta esanguratsuenetako bat omentzeko, herritarren elkarlanean, Lekunberriko Bidegorri alboan, ikatz txondor bat eraiki da. Juanjo Zubieta eta Javier Irigoien (Ondare Kultur Taldea), hainbat antolatzaileetako bi izan dira. Ekitaldia, antzinako teknika zirraragarria berpizteko, ikatza ekoizteko eta elkarlana ospatzeko topagunea izan da.*



Egurrak pilatzen. Argazkia: Juanjo Zubieta

Txondorra eraikitzeke unean, antolatzaile nagusia Ondare Kultur Taldea izan den arren, proiektuak hainbat erakunderen ekarpen baliotsua izan du. Alde batetik, beharrezko finantziarioa eta babesia, Lekunberri eta Larraungo udalek eskaini dute; beste aldetik, Miguel Landerrek, Biloriako (Nafarroa) ikazkin profesionalak, zeregin garrantzitsua izan du hasieratik, ez bakarrik bere esperientzia teknikoagatik, baita antzinako tradizio hau zaintzen egindako lanagatik ere.

*“Txondorra bilatzeko, gakoa da eremu bat bilatzea, non lurra kolore beltz bereizgarria duen, euskaraz ‘irudi’ bezala ezagutzen dena”*

Juanjo

Lander, hainbat aldiz izendatu dute “Euskal Herriko azken ikazkina”, izan ere, ikazkintza ogibide duen bakarra da, bere emaztea Mertxe eta Arkaitz semearen laguntzarekin batera. Hala ere, berak argi dio ez dela azkena izanen, horrelako egitasmoek jende berria bultzatzen baitute. Gainera, Fermín Leizaola, Gipuzkoako etnografo eta espeleologo aditua ere, Txondorrera bertaratu zen, bere laguntza eta aholkuak eskaintzeko.

Azken Muga, Gipuzkoako elkarte artistiko eta kulturalak, txondorraren eraikuntzaren ideia adierazi zuen udaran egin zen bilera batean, eta Guillermo Olmo, bertako zuzendaria prozesuaren laguntzaile izan zen. Iturraskarri, gainera, funtsezkoa izan zen ekitaldiaren kudeaketan eta antolaketan. Ahalegin kolektibo horri esker, teknika tradizionala susperetzeaz gain, komunitate harremanak eta kultura ondarea indartu dira.

### **Ikazkintza antzinako ogibide**

Txondorra ez da prozesu tekniko bat bakarrik, mendeetan zehar Euskal Herrian praktikatu den artea da. Ikatza ekoizteko metodo tradizional honen bidez, zura modu kontrolatuan egosten da erretzera iritsi gabe ikatz bihurtzeko. Iraganean, hainbat lantokitan erabiltzen zen, metalen industrian eta etxeko sukaldeetan, adibidez. Juanjok, prozesu honen garrantzi historikoa azaldu du: “XIX. mendera arte, ikatz minerala ez zen erabiltzen gure eskualdean. Horren ordeztu, landare-ikatza funtsezkoa zen sutegietarako, galdategietarako eta beste erabilera industrial batzuetarako. Gainera, etxeak berotzeko erabiltzen zen, batez ere berokuntza sistema modernoagoak iritsi aurretik”. Txondorra, trebetasuna, pazientzia eta iraganarekiko lotura sakona

*“Parte hartzaileen artean apustu bat egin genuen, zenbat zaku ikatz sortuko ziren asmatzeko”*

Javier

uztartzeko dituen prozesua da, eta gurean, herentzia kulturalaren ospakizun bihurtu da. Ekitaldi ezohiko honetan, komunitateak bat egin zuen antzinako prozesua berreraikitzeko eta ikatz ekoizpenaren magia bertatik bertara sentitzeko.

### **Eraikuntza eta prozesua**

Txondorra eraikitzea, plangintza zehatza eta ahalegin kolektiboa behar duen ekitaldia izan da. Hasteko, labe tradizionala lurrian egiten da, eta bertan kontu handiz pilatzen da zura, muino baten itxuran. Muino hori landarez (irastorra, goroldioa, orbela, zotala, belar-landareak...) eta lurrez estaltzen da, eta barneko sua pizten da. Horri esker, egurra poliki-poliki erre daiteke, ikatz bihurtzen duen prozesu batean.

Txondorra ahalegin kolektiboa izan da zentzu guztietan. Adin desberdinetako herritarrek eta hainbat lekutatik etorritako boluntarioek parte hartu zuten bertan. Sustraietara berriro konektatzeko eta belaunaldi berriari praktika tradizionalen garrantzia erakusteko aukera zoragarria izan da. Ekitaldiak, ikatza ekoizteko ez ezik, komunitatearen barruko loturak sendotzeko eta gazteek tradizio horiek nola mantendu ikasteko ere balio izan du.

### **Antzinako txondorrek Aralar inguruan**

Juanjok adierazi duen modura: “Gorrititik hasita, Uitz, Etxarri, Aldatz, Madotz, Oderitz, etab. herri horietaraino guztietaraino, mendietan argi ikusten dira txondor-plazak, eta egia esan, gure ingurua josita dago. Aralarko mendietan ehundaka txondor-plaza daude, milaka ez esatearren. Horrek esan nahi du hemen ikazkinen lana oso indartsua izan



*“Horrelako ekitaldiek, tradizioak berpizteaz gain, lagunarteko giroa eta dibertsioa ere sortzen dute”*

Javier

zela garai batean, ikatz pila ekoizten zela iraganean eta ikazkin pila egon direla, horien artean, gure arbasoak”. Baina, nola identifikatu dezakegu iraganeko txondor bat Aralar inguruan? Juanjok, leku historiko horiek eza-gutzeko trikimailua azaldu du: “Txondorra identifikatzeko, ezinbestekoa da lurra behatzea. Lurrean erdi biribilak diren eremuak aurkitu behar ditugu, askotan landaretzaz partzialki estalita daudenak. Gakoa da eremu bat bilatzea, non lurra kolore beltz bereizgarria duen, euskaraz ‘irudi’ bezala ezagutzen dena, lurra ikaztua izan dela adierazten duena”.

Ezagutza hori txondorretan interesa dutenentzat ez ezik, iragana zaindu eta ulertu nahi duten etnografo eta historialarientzat ere baliagarria da. Leku horiek identifikatzeko funtsezkoa da kultura-ondarea kontserbatzeko eta ikatza ekoizteko teknika tradizionalak hautemateko.

Gaur egun, ikatz tradizionala gastronomian eta industrian asko baloratzen da. Juanjok dio: “Nahiz eta ikatz mineralak neurri handi batean landare-ikatz ordezkatu, landare-ikatz oraindik ere asko baloratzen da, batez ere sukaldean. Bere kalitateak eta zapoak ezin hobea egiten dute janariaren zaporea”.

Ekitaldian zehar ikatzaren ekoizpena esanguratsua izan zen. Javierrek, txondorren errendimenduari buruzko xehetasunak eman ditu: “Seitona pago egurreko, gutxi gorabehera, ikatz kantitate horren laurdena ekoiztuko zela uste zen. Gure kalkuluen arabera, erabili ditugun 6,000 kg-tik 1,015 kg ikatz inguru lortu ditugu”. Emaiza horrek, prozesuaren era-



Ikazkina txondor gainean

ginkortasuna, inplikaturako guztien ahalegina eta ilusioa ere adierazi du.

### Ikatzaren garrantzia

Juanjok adierazi du, Miguel Lander ikazkinaren iritziz ikatz zoragarri atera zela Lekunberriko Txondorretik, primerakoa. "Ekitaldian sortutako ikatza kalitatezkoa izan da" gehitu du Javierrek. "Ikatza erdi egosita ateratzen denean, erretzerakoan txinparta asko sortzen ditu. Horri deitzen diogu ilintxa (ilinti), eta egia esan, horrelako gutxi atera zen gure txondorretik".

Ekitaldiak arrakasta handia izan du eta ospakizun giroa osatu da bertan. Ondare Kultur Taldeak, eta parte hartu duten boluntario guztiek (65



Ikatz zabaltzen

**"Ekitaldian sortutako ikatza kalitatezkoa izan da"**

Juanjo

pertsona inguru), komunitatearen barruko loturak sendotu eta gazteak praktika horien garrantziaren inguruan hezi dituen esperientzia sortzea lortu dute.

Javierrek ekitaldiaren eragin positiboa azpimarratu du: "Liluragarria da ikustea ikatza oraindik ere baloratzen dela. Herritarren parte-hartzea funtsezkoa izan da. Horrelako ekitaldiek, tradizioak berpizteaz gain, lagunarteko giroa eta dibertsioa ere sortzen dute".

Txondorrek belaunaldi eta komunitate ezberdinak konektatzeko plataforma gisa balio izan du. Juanjok azpimarratzen du: "herriko hainbat jende ez genuela ezagutzen eta azkenean, harreman estuak sortu ditugu txondorra zaindu bitartean".

### Irauten duen ondarea

Txondorren bidez, komunitateak erakutsi du iraganak etorkizuna argitu dezakeela ustekabeko modu balioetsuetan. Juanjoren eta Javierren dedikazioa, ilusioa eta gogoia funtsezkoak izan dira tradizio eder honek bizirik irauteaz gain, gaur egun ere aurrera egingo duela bermatzeko.

Gainera, ospakizunaren parte bezala, antolatzaileek lehia dibertigarri bat sortu zuten: ekitaldian zehar zenbat zaku ikatz izango ziren asmatzeko apustua. Javierrek gogo biziz kontatzen du: "Parte hartzaileen artean apustu bat egin genuen, zenbat zaku ikatz sortuko ziren asmatzeko. Iñaki Etxebarria, Oderizko Etxatoa lande-

**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegj, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



*“Txondorra mirestea oso lasaigarria izan da”*

Javier

txeko jabeak, aipatu zuen oso gustura sentitu zela egitasmo honetan zehar, eta bere esker ona adierazteko, apustuaren irabazleari bere lantxeko suite ederrean asteburu bat oparitu zion, eta Ondare Kultur Taldeak, gazta eder bat. Beraz, sari zoraigarria zen, eta azkenean, Uitziko Oier Ijurkoko irabazi zuen. 68 zaku iragarri zituen eta guk 67 zaku eta erdi atera genituen”. Lehiaketa dibertigarri hau aukera paregabea izan zen ekitaldiari ukitu berezi bat gehitzeko.

Txondorraren arrakastak, erakutsi du historia eta kultura inspirazio eta lotura iturri izan daitezkeela XXI. mendean. Ekitaldia, kultura-ondarearen ospakizuna eta tradizioek gure bizitza modernoa nola aberastu dezaketen hausnartzeko aukera izan da.

**Juanjo:** “Txondorra sortzeak, komunitatearen elkarlana bermatu du”.

**Javier:** “Txondorra mirestea oso lasaigarria izan da, eta bertaratu diren hainbat lagunek hori aipatu dute. Gaur egungo bizitza azkar honetan, ia erlojupean bizi garen honetan, txondorrek berea egiten zuen, eta hurbiltzean, kearen erritmora egon behar zinen, ez zegoen besterik”. Egitasmo honek interesa piztu du,



Txalapartariak

eta hainbat profesional eta afizionatu joan ziren ekitaldia ikustera, Juanjok adierazi duen bezala: “Euskal Herrian dauden ikazkin gehienak hemendik igaro dira: Antzingo Karlos, Eltzaburuko Karlos Agirre eta Ana Mindegia, Larralgo Koldo Jauregi, Oñatiko “Txondorran Bueltan” taldekoak, etab. Gai honetan adituak diren hainbat lagun igaro dira kuriositateagatik, interesagatik, etab. Gai-

nera, txondorra amaitu arte prozesua jarraitu dute. Denok zaindu dugu txondorra gure umea izanen balitz bezala”.

Ekintza kultural ederra izan da, eta zorionez, guztia grabatu da. Beraz, laster, **ONDARE KULTUR TALDEA** YouTubeko kanalean ikusgai izanen da: [@ondarekulturaldea8308](https://www.youtube.com/channel/UC...)

**Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean**  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

**Industrialdea, 11**  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

# FESTAK

## INTZA



Argazkiak: Intzako Gazte Taldea



## ETXARRI



Argazkiak: Ana Telletxea



Los Tritus musika taldea. Argazkiak: Ane Ubegun

## ARRUITZ



Arruitz. Argazkiak: Bernar Azpitotz



UITZI



Argazkiak: Eider Martiarena

BARAIBAR



Argazkiak: Anne Oreja

## 13 talde eta ia 100 parte hartzaile Bardoetan

Bardoak 2024, Nafarroako taldekako Bertsolari Txapelketa abian da irailaren 13tik. Osotara, 13 taldek eta 100 lagun inguruk parte hartuko dute. Bertan, auzolana eta talde lana oinarri dira eta herrialdeko Bertso Eskolen sarea indartzeko asmoz bi urtetik behin egiten da.

Egitasmoaren bigarren asteburuan lau saio ospatu ziren: Olaztin, Lekunberrin, Lekarozen eta Iruñean. Zortzi taldek egin zuten kantu, finalurrekorako sailkapenaren bila. Lekunberrin, Printzan ospatu zen irailaren 20ean eta etxeko "Pikutara goaz" taldeak, garaipen garrantzitsua lortu zuen "Argako bixiguak" taldearen aurka. Garaipen hau erabakigarria izan zen Sunbillan "Malerreka ez da Baztan" taldearen aurka galdu ondoren.

Orain, "Malerreka ez da Baztan" eta "Argako bixiguak" taldeen arteko norgehiagoka izango da, eta itxaron egin beharko da finalurrekorako nor sailkatuko den ikusteko.



Pikutara goaz eta Argako bixiguak taldeak Printzan.  
Argazkia: Aitor Irastortza



Lehiaketako une bat.  
Argazkia: Aitor Irastortza

## Beteluko bizilagunak auzolanean

Irailaren hasieran, Beteluko 25 lagun inguru bildu ziren herrian hainbat lan egiteko, ikasturte berriaren hasierarekin batera. Lan ugari egin zituzten: bide bazterrak txukundu, baranda margotu, markesinak garbitu, belarra moztu, etab. Jardunaldia lankidetzeta eta adiskidetasun giroan egin zen, eta amaitzeko, otordu bat egin zuten bertako elkartean.



Herriko bazterrak garbitzen. Argazkia: Arantxa Mikeo



Elkarteko otordua



Markesina garbitzen



Belarra moztzen

## Naturaren sekretuen bila

Udako oporrak ederki gozatu ondoren, hemen da Euskaraz Bai! Larraun ibarrak altxor mordera gordetzen ditu, eta guzti horiek ezagutzeko, irailaren 16ean, Astizko Aterpetik, arratsaldean abiatuta, mendi martxa zoragarri eta interesgarria egin zen. Ibilaldian 15 haur elkartu ziren eta primeran pasatzeko proposamen berri eta interesgarria izan zen.



## Palestinaren aldeko BIZIKleta martxa irteerak

Irailaren 14ean, dozenaka lagunek bat egin zuten Palestinaren aldeko Bizikleta Martxarekin, Larraungo eta inguruko herrietatik abiatuta. Ibilbidea goizeko 10:00etan hasi zen Madotz, Etxarri, Gorriti, Errazkin eta Albiasu herrietatik, besteak beste. 11:00etan, parte hartzaile guztiak Lekunberriko plazan bildu ziren, eta bertatik jarraitu zuten ibilbidea egiten herriko kaleetan barrena.

Mobilizazioa ez zen soilik kirol ekitaldi bat izan, baizik eta Palestinako herriari elkartasuna adierazteko manifestazio bat, Gazako Zerrendan izandako tragedia salatuz, non bertako Osasun Ministerioaren arabera, 42,000 pertsona baino gehiago hil baitira azken hilabeteetan. Gainera, ekitaldiak Gazako biztanleek bizi duten krisi gizaldekua azpimarratu zuen, batez beste 130 pertsona hiltzen baitira egunero eta 94,616 zauritu, gehienak emakumeak eta haurrak, edateko uraren eskasiari eta desnutrizioari aurre egiten dieten bitartean.

Lekunberri zeharkatu ondoren, txirindulariak bertako Mataderoan gelditu ziren Palestinaren omenezko mural bat inauguratzeko, eta ondoren otordua egin zen Beigorri parkean. Jardunaldian, Israelgo produktuei eta sionismoa babesten duten markei boikota egiteko deia egin zen, hala nola; Carrefour, McDonald 's, Burger King, Coca Cola, Nestle edo Colgateko markei, eta Palestinako herriak hainbat hamarkadetako okupazioaren eta indarkeriaren aurrean duen erresistentzia nabarmendu zen.

Martxa mezu argi batekin amaitu zen: "Gora Palestina Askatuta!"



## Adierazpen askatasuna. Beti izan beharko luke lehen gauza?

Ez. Gaur egun edonork argitaratu dezake nahi duena, eta ez dago zigorrik. Hori ezin da onartu.

Adibidez, buru gaixotasun inguruan gero eta bideo eta "influenter" gehiago dago. Gehienak kalitatezkoak, beste asko ez.

"Hau edo beste daukat/naiz eta hau da nire bizitza miragarria" inongo diagnostiko edo txosten ofizialik erakutsi gabe, erromantiziotik eta buru gaixotasunak zoragarri eta dibertigarriak direla ere erakustera arte. Autodiagnostiko batean oinarriturik askotan, antzetzuz kasu larrietan "profesionalek ez zekiten zer gertatzen zitzaidan eta azkenean nik ikertu behar izan dut". Profesional batek baino gehiago dakizu benetan? Bai titulitisa, bla bla bla... Baina apendizektomia bat mila aldiz ikusi duen baino zirujau ziurtagiririk ez duen pertsona baten eskuetan jarriko zinateke?

Buru gaixotasunak gutxi esten ari gara, eta gutxieste hori onartzen, bideo batean bisitak lortu eta fama lortzeko. ez dago araurik, ez dago inongo limite eta zigorrik. Zigorrik handiena, jarraitzaile galera, erreputazio galera. Baina bidean mezu faltsuak zabaltu dizkiote ehunka pertsonari. Arazoak dituztela pentsaraziz batzuei, eta dituztenak gutxietsi edo baliogabetuz.

Nahi dena esan eta egitea ez da bidezkoa beti, sareetan nahi dena argitaratzea ez dago ondo. Tamalez gertatzen da, eta kontrola ia ezinezkoa da. Horregatik eta gaur egun, bideo eta sare sozialen kontsumitzaile sutsuenak, gazteak, eta haurrak direlako, behin eta berriro esango dut, kontrolatu ikusten dutena. Informatu, baino benetan informatu eta jo profesionalengana.



## ARAIZKO KABLEAREN EGUNA

Irailak 14 ospatu zen Araizko Kable Eguna. Aurkezpena Gaintzako plazan izan zen eta ekitaldia Zezelainen. Kablea jaso eta garai batean Malloan nola lan egiten zen ikasteko aukera ederra izan zen. Malloa belarrez bete zegoen eta belarra, goi haietatik, baserrietaraino jaisten zen aireko kableen bidez. Gaur egun, ia ez da arrastorik gelditzen paisaiara aldaketa ekarri zuten tirolina haien gainean. Bai, ordea, bertako herritarren oroitza-pena, aspaldiko lan molde hori ezagutu zutelako.

Kablearen Behatokia aurkeztu zuen Jose Manuel Zubillagak, Araizko alkateak. Eraikuntza txiki hau, Arantz bailarak eskaintzen dituen istorio txiki eta handiak hedatzeko sortutako gunea da. Gaintza baino kilometro bat gora dago, Mallo bidean, eta ibarraren historia birpasatzen du, artzainei, kableari, etnografiari, geologiari eta naturari eskainitako panelen bidez.



Jose Manuel Zubillaga Kablearen Behatokia aurkezten



tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

**ALTSASU - IRURTZUN**  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
**24 ORDUKO TELEFONOA**  
• 948 19 70 70 •  
www.tanatoriosirache.es

**BIDEGOXO** JATETXEA

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com


CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK

Granja Martineza, GAITZA, Nafarea  
Ibaki. 649 672 051 • localde. 640 511 051  
Malloak.com • info@malloak.com

IDIAZABAL



**aseguru gintza XXI**

**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**HOSTAL BETELU**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 - 663 97 67 09

**Atabal**  
*ahindoria*

Era askotako ogiak eta gozoak

**Etkez etxe banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

## Betelu Futbol Taldeak urte borobila

Betelu Futbol Taldeak garaipena lortu zuen Superkopian. Azken partidua Altsasun izan zen, Arbizuren aurka, eta bertan, 3-1 irabaztea lortu zuten. Aurreko urtea, boro-



Superkopako azken partiduko une bat. Argazkia: Betelu F.T.

bila izan da haientzat, izan ere, Liga, Kopa eta Superkopa irabazi dituzte. Uda amaitu baino lehen hasiak dira entrenatzen eta aurrendenboraldia prestatzen. Aurten 3. mailan jokatuko dute eta erronka handia dela diote bertako jokalariek. Aurreko urteko prestakuntza berdinarekin jarraituko dute, aurten ere, ahal duten hoberen lehiatzeko.



Betelu Futbol Taldea aurrendenboraldia prestatzen

## Beteluko Pilota Eskola denboraldi berrirako prest

Beteluko Pilota Eskolako ate irekiak irailaren 17an hasi ziren eta bi aste iraun zuen. Ate ireki horien helburuak, kirola ezagutu eta parte hartzea bultzatzea izan ziren. Berehala, Nafarroako Federazioko Banakako txapelketa hasiko da, eta Beteluko pilotariak jada prestatzen hasi dira.



Beteluko Pilota Eskolako pilotariak. Argazkia: Gari Huizi



**SOTIL GARAJEA**  
**BETELU**  
 948 513 007  
 sotilgarajea@gmail.com



**ekin**  
 rotulación  
 948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
 Taberna-Jatetxea  
 Arribe  
 948 51 31 34



**ALIPROX**  
 Lekunberri  
 janaridenda  
 hamabostaldi  
 eskaintza bereziak

**OTXOTORENA**  
 okindegia  
 ARRIBE  
**ADIII TLF BERRIA:**  
 948 51 30 32

**INFORMATIKA ARALAR**  
 LEXUNBERRI - ARRITZ  
 LARRAUN  
 JALMENTA ETA KONPONTZEA  
 634 551 743  
 infoaralar@gmail.com



Errotaledea 19,  
 Lekunberri  
**MARTILO Txiki**  
 PERKUSIO-ESKOLA  
 www.martillobiki.com  
 679 938 016

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA**  
**ARLOETAKO HORNIGAIK**  
**BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**  
**URZUBI S.A.**  
 Tel. 948 50 42 41  
 Fax 948 60 45 20  
 Lekunberri  
 urzubi@hotmail.com

**TAXI**  
**SOROA**  
 609 168 217  
 Bederatzi plaza



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**  
 ZURGINTZA OROKORRA  
 INDUSTRIALDEA 15- LEXUNBERRI  
 Telefonoa eta Faxa: 948507343  
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



## Denboraldi berria Beti Kozkor taldearentzat

Irailaren 8an, Beti Kozkor taldeak gogo eta parte hartze handiarekin eman zion hasiera denboraldi berriari. 350 jokalaria baino gehiagorekin, Lekunberriko klubak indartzen jarraitzen du. Horretaz gain, bazkide egitea klubari laguntzeko modu bikaina izango da. Urtean 30 euroko kuota berezia ordaintzearekin, hirugarren mailako taldearen partida guztietara joateko eta zozketa desberdinetan parte hartzeko aukera izanen da.

Informazio gehiago lortzeko, deitu **669 438 425** zenbakira edo idatzi betikozkor@betikozkor.com helbide elektronikora.



Denboraldi berriko jokalariaik. Argazkia: Beti Kozkor

## Euskal Herriko Disc Golf txapeldunak

2024ko Euskal Herriko IV. Disc Golf Txapelketa irailaren 21ean egin zen Sestaon eta Portugaleten (Bizkaia). Bertako eta beste eskualde batzuetako jokalarien parte-hartzea aipagarria izan zen. Lekunberri Kirol Elkarteko Disc Golf saileko bi garaile izan ziren bertan, alde batetik, AM1 kategorian (lehen mailako amateur mistoa), Rafael Sarriegui Hidakok (Lekunberri) lortu zuen lehen postua. Beste aldetik, emakumezkoen FA1 kategorian, Lorea Zulet Ruiz (Lekunberri) izan zen txapelduna. MJ18 kategorian (18 urtez azpiko junior mistoa), Beñat Arribas, talde berdineko bilbotarrak irabazi zuen titulua.



Euskal Herriko Disc Golf txapeldunak. Argazkia: Bilbao Dic Golf Club

## John, maisu apala

Espero ez ditugunean, sorpresak etortzen dira. Aurten Sri Lankaren erdian geundela, Lisa, nire bikotearen aita oso gaixotu zen. Irailaren 8ko goizaldean jo zuen telefonoak Kolonbon geundela lotan. Aita hilberria zen. Oso une tristea izan zen eta betiko gordeko dut memorian gau latz hura. Lisaren aita, John Kuriscak, Eslobakiako herri txiki batean jaio zen 1938an eta bertan igaro zuen gerra. Umetan gosea, hotza, ikara zein errusiarren eta nazien bortizkeria jasan zituen gogor eta txiripaz libratu preso edo hilda izatetik. Gerra bukatuta, Estatu Batuetara migratu ziren 9 urte zituela.

Amerikan izan zituen bere lehenengo oinetakoak. Eskolan oinarritzko ikasketak egin ondoren, gazte hasi zen lanean arrotz bezala. Pertsona azkarra zen, beti adi eta kritikoa. Ez zen isilik egotekoa eta bere ideiak edozeinekin hitz egitekoa zen. Honen, inoiz arazoak ekarri zizkion.

Nik ezagutu nuen gizon hau bakezalea zen. Espiritualitateari garrantzi handia ematen zion eta urtetan oso elizkoia izan bazen ere, nagusitzean haratago joan nahi izan zuen. Bere baloreen artean familia zegoen. Nik ezagutu nuen denboran maiz hitz egin genuen eta asko azaldu zidan. Oso eskertua sentitzen naiz bera ezagutu nuelako eta irakatsi zidan guztia-gatik. Lisa eta niretzat izan zituen azken hitzak izan ziren "Ongi zaindu elkar" eta "Bizitzaz gozatu".



## Ttutturre Kirol Elkarteak Palentziako mendietan

Aurten Pirinioetara jo beharrean, irailak 6, 7 eta 8, Ttutturrek Kirol Elkarteak, urtero antolatzen duen asteburua Palentzia aldean antolatu du. Ederki pasa zuten, nahiz eta larunbatean *Curavacas* gailurrera igotzeko eguraldi kaxkarra egin. Egun berean, *Tejeda de Tosande*, hagina zuhaitzez betetako baso handi eta zoragarria igarotzen duen ibilbidea egiteko aukera ere izan zuten. Eta igandean, ordea, *Murcia* gailurra eta *Poza de las Lomas*. Ostatu *Cervera de Pisuergan* egin zuten lo eta leku desberdinetako 45 lagun elkartu ziren: Araitz, Betelu, Leitza, Ultzama, Larraun, Lekunberri, Iruñea, etab. Asteburu ederra izan zen.



Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleak Palentziako mendian.  
*Argazkia: Idoira Igoa*



# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Zubatza

*Kurso hasieratan normala izatea ume ttikinai marrazkik iñaztea, udako momentu politt bat goatzeko; aurreneko eunetako nerbioak pixkoat lasaitzeko; nola sentitzen deen adierazteko, ... Urtetan ta urtetan errepikatzean teknika hezitzailea izangoa nonbattee, gure garaiean re itten baigiñun majiñeat marrazki.*

*Gure etxea marrazteko eskatu ziguen behin; gure etxea eta etxe-inguruk, eskolaa etorri zen andereño berri harrek hobeki ezautu nahi ginttula ba. Ai ama! Paper zuri ta lau batean nola krixto kabittu gure etxea eta etxe-inguru guztie? Buruek milimetro bakoitze ezautzeo, baño eskue ezta hain trebea izaten. Hasi zen, halai, zeoze pintatzen: folioan erdi-erdin, etxe haundiet, zuri-zurie eta leihoz betea; tellatu gorri pikodune, hiruarren pikoan atzean tximiniet; izpi luze-luzeak zittun euzki borobil-borobil bat re bazen paperan eskuiñeko aldean, baño tximinitik kea. Etxe-ataie lorez betea. Ez ta oso errexa hainbeste lore pintatzea. Bueno, koloretako puntutxoak baztar guztitan ta lixto. Zakurren txabola eta ingurun, Argi eta Txato; bat marrona eta bestea beltza. Ah! ta Ttiki ratoneroa; hau, atean ondoan. Eur-tokie, laukitxo marronez bete-betea; bandioa; ganbaako balkona ta arropa batzuk zintzilike; ikuillueko aldapa ta ondoan bi zubatz...*

*Zubatzak!*

*-Etxe ondoko bi montoi marroi hauek zer dira, maitia? Kar, kar, kar...*

*Nik uste triku bat bezala bildu nitzela momentu hartan lotsaan lotsaz. Nola zubatzak zer zeen? Garo-zubatzak. Udazken garai hontan gaaritatik garoa ekarri eta negueko pillen jarritako garo-zubatzak. Ai ama! Nola gure andereño berri honek zubatza zer den ez dakila!*


*Beak jakin ez ta umeai parra!! Hoixe da ba ume baten marrazki baten aurrean sekule in behar ez dena: parra. Bere irudimen guztie trikutu itten delako bestela. Buruek milimetroki ezautzeon irudi hoi ez to perfektu itten eskuek; ta are okerrau ikusteo beitzen ez dakin begiek!*

*Kresal usaiean Maitia esaten zigun andereño harren herrira joan udan ta, herri sarreran han non ikusiko Ongi etorri, puntun ikurriñe'at zun zubatz haundi-haundi baten ondoan!*

*Parramurri bihurriet atea zait. Nee artean: eztakit emakume harrek eakusten seittukoon, baño dauneko zubatza zer den ikasiko al zun bintzet!*

# “Abereen kudeaketa eraginkorrak, landa-ekonomia indartu dezake”

**Ekiñe Garazo Gamiok, 21 urte ditu. Izatez, Gaztelukoa da, baina bost urte daramatza Allin-Larraun- bizitzen. Gaur egun, erabat integratua sentitzen da ibarrean. Gainera, inguruko landa garapenarekin konprometitua sentitzen da eta bertako parte hartzailea izateak pozten du.**



Ekiñe Garazo arkume batekin.  
Argazkia: Ekiñe Garazo

28

## Zertan datza landa-garapeneko ikastaroa?

Egin nuen ikastaroari “Gazteak nekazaritza-sektorean instalatzeko ikastaroa” deitzen zaio. Bertan, funtsezko hainbat gai aztertu genituen, hala nola nekazaritza sektorean ezartzeko gakoak, nekazaritza enpresentzako oinarriko kontabilitatea, eta neurri jasangarriak landa ustiatzietako ekoizpen kudeaketan. Produktu fitosanitarioen manipulazioari buruzko edukiak ere ikasi genituen, oinarrikoa eta laneko arriskuen prebentzioa lantzeko. Ikastaroa gazteak nekazaritza sektorean integratzeko eta arrakasta izateko diseinatua zegoen.

*“Ikastaroa gazteak nekazaritza sektorean integratzeko eta arrakasta izateko diseinatua zegoen”*

## Nolatan murgildu zinen landa-garapenari buruzko ikastaro honetan?

Nire bikotekideak eta familiak ikastaroan izena ematera animatu ninduten, haien laguntza etengabea izan da. Beti alboan egon dira, animatzen eta nire interesak jarraitzaera motibatzen. Ikastaroan hasi baino lehen, konturatu nintzen gaur egun funtsezkoa dela gazteok sektore honetan jakin-mina adieraztea. Energia eta ikuspuntu berriak behar dira gaur egungo erronkei aurre egiteko eta landa-ingurumena biziberritzeko. Naturak eskaintzen duen potentziala ikusteak bultzatu ninduen pauso hau ematera.

## Zer espero zenuen lortzea ikastaro honetan?

Nekazaritzan ongi hasteko beharrezkoa dena ikastea espero nuen: kudeaketa, oinarriko kontabilitatea eta ustiatzietan iraunkortasuna. Horretaz gain, sektorearentzat eskuragarri dauden diru laguntzek nola funtzionatzen duten ongi ulertu nahi nuen.

## Zer landu zenuen ikastaroan?

Ikastaroan, naturari eta ingurumenari buruzko alderdi nabarmenenak eta abeltzaintzako ustiatzietan praktika iraunkorrak nola aplikatu azaldu zituzten irakasleek, hala nola, natura-baliabideen erabilera arduratsua eta luraren zaintza. Gainera, ingurume-

nean sortzen den inpaktua murrizten ikasi genuen, abeltzaintza teknika eraginkorrak erabiliz eta tokiko biodibertsitatea babesteak duen garrantzia berrikasiz. Horretaz gain, txangoak egin genituen hainbat ganadutegitara, batez ere ingurumena errespetatzen duten egoera praktikoak nola maneiatzen zituzten ikusteko.

## Aziendaren erabilera landa-garapenaren funtsezko zati bat da. Zer ezagutza ikasi zenuen arlo horretan?

Klasean, hainbat gai ikusi genituen, hala nola: animalien osasuna zaintzea, instalazioetarako ingurumen-baimenak lortzea, abeltzaintza eta simaurren kudeaketa egokia erabiltzea, etab. Gainera, kudeaketa plan bat garatzen ere ikasi nuen, eta hondakinak eta albaitaritzako sendagaiak behar bezala erabiltzen ere. Horretaz gain, abeltzaintzan garbiketara ona mantentzearen garrantzia, animalien ezagutza eta datu baseen erabilera nolakoa zen ikusi nuen. Halaber, animalien ongizatea landu eta abeltzaintzako ustiatzietan, abeltzaintzako ekoizpenerako zerbitzuak, animalien ekoizpena eta elikagaiak merkaturatzea ikasi nituen.

## Nekazaritzako makineria erabiltzen ikasi zenuen?

Bai, nekazaritza arloko lan arriskuei buruzko prestakuntza jaso nuen, horren barruan: nekazaritzako makineria modernoaren segurtasuna eta eraginkortasuna. Horrela, ekipoen erabilera egokia eta hauetan aurkitu daitezkeen arriskuak identifikatzea eta aurreikustea erakutsi zidaten.

## Landa praktiketan parte hartzeko aukera izan zenuen?

Ikastaroan ez genuen aukera izan



*“Energia eta ikuspuntu berriak behar dira gaur egungo erronkei aurre egiteko eta landa-ingurumena biziberritzeko”*

landan praktketan parte hartzeko. Hala ere, etxean neu arduratzen naiz belarrek in zerkusia duten lanak egiteaz. Ni arduratzen naiz moztu, irauli eta antzeko beste lan batzuk egiteaz, eta, egia esan, asko gustatzen zait.

#### **Izan zenuen esperientzia esanguratsurik ikastaroan?**

Esperientzia esanguratsuenetako bat lehen sorospenak izan ziren. Landa ingurunean gertatu ahal diren larrialdi egoeretakako teknika erabakigarriak ikasi genituen, hala nola bihotz-biriketako bizkortzea eta zaurien tratamendua. Gainera, aipagarria da ikastaroan izan nuen esperientzia bereziagoa izan zela gainontzeko ikaskideekin izandako adiskidetasunagatik. Oso harreman ona egin genuen, eta haiei esker, ikaskuntza jarduera oso atsegin izan zen.

#### **Zeintzuk dira landa-garapenaren egungo erronkarik handienak?**

Nire ustez, egungo erronka handienek iraunkortasuna barne hartzen dute. Baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta teknologia berrietara egokitzea erronketako bat da. Era berean, funtsezkoa da landa-eremuetak despopulazioa eta dibertsifikazio ekonomikoa lantzea.

#### **Ikasitakoarekin proiektu bat garatzea gustatuko litzaizuke?**

Bai, ardien esnea ekoizten espezializatutako abeltzaintza-ustiategi bat sortu nahi nuke. Ikastaroan ikasitakoarekin, praktika

*“Nekazaritzan ongi hasteko beharrezkoa dena ikastea espero nuen: kudeaketa, oinarrizko kontabilitatea eta ustiategiaren iraunkortasuna”*

jasangarriak ezarri nahi ditut ustiapenaren kudeaketa eraginkorra izan dadin, ganadua administrazioetik hasi eta makineria eta baliabideak behar bezala erabiltzeko. Proiektu honek aukera emanen dit kontabilitatean, produktu fitosanitarioen erabilera eta prebentzioan eskuratutako ezagutzak ardi-abeltzaintzaren sektorea praktikan jartzeko.

#### **Nola lagun dezake landa-garapenak ingurumena babesten?**

Landa-garapenak ingurumena babes dezake nekazaritza-jarduerak sustatuz. Horren barruan sartzen dira: ura modu eraginkorrean erabiltzea, lurzorua eta airea ez kutsatzea, eta landareen eta animalien aniztasuna sustatzea. Gainera, teknologia funtsezkoa da nekazaritza modernoan, laguntza ematen baitu laneko zehaztasuna eta produktibitatea hobetzen.

#### **Zure ikuspegitik eta zure ikaskuntzatik, nola eragiten du ganadua kudeaketa egokiak landa-ekonomian?**

Aziendaren kudeaketa onak eragin positibo handia izan dezake lan-

*“Landa-garapenak ingurumena babes dezake nekazaritza-jarduerak sustatuz, hala nola ura modu eraginkorrean erabiltzea eta lurzorua ez kutsatzea”*

da-ekonomian.


Ganadua modu eraginkorrean moneiatzean, produktuen ekoizpena handitu daiteke, esnea eta haragia, adibidez, eta horrek ustiategiaren ekonomia hobetzen du. Horretaz gain, enpleguak sortzeko eta tokiko garapena sustatzeko baliagarria izan daiteke.

#### **Bidali nahi duzu mezu berezirik egungo gazteentzat?**

Bai, ganadutegiaren eta landa-garapenean interesa duten gazteak parte hartzera animatzea gustatuko litzaizake. Ikastaro honek, oso ikasketa baliotsuak eskaintzen ditu. Mezu berezi bat ere bidali nahi diet neskei: ez lotsarik izan mundu honetan murgiltzeko. Prestakuntza oso aberasgarria da eta aukera asko ireki ditzake nekazaritza-sektorean.

## Arnasetik Bideosormen Lehiaketa martxan da!

Arnasa Gara ekimenak bideosormen lehiaketa antolatu du euskararen arnaguneetako 10 eta 16 urte bitarteko gazteen sormena eta euren hizkuntza ohituren eta herrien inguruan gogoeta pizteko. Arnasa Gara, UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea), Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin sustatutako egitasmoa da. Gazteei zuzendutako lehiaketak hiru kategoriatan ditu adinaren arabera (LH 5-6; DBH 1-2; eta DBH 3-4) eta 500 euroko balioa duten 4 sari banatuko dira. Parte hartzeko azken eguna urriaren 31 izango da. **Informazio guztia hemen:** <https://labur.eus/Dk0z8>. Animatu eta parte hartu!



## Irurtzungo Pikuxar tabernak zerbitzaria bilatzen du

Txandakako asteburuetan lan egiteko pertsona baten bila ari dira. Esperientzia baloratuko da eta euskara hitz egitea ezinbestekoa da. Interesa baduzu, CVA tabernan utzi edo [pikutaberna@gmail.com](mailto:pikutaberna@gmail.com) helbide elektronikora bidali.

## Contact Impro ikastaroa Gaintzako Sortetxean

Urriak 11, 12 eta 13, Gaintzako Sortetxean Contact Impro sakontzeko ikastaroa egingen da, taldea osatu da eta oraindik lekuak daude! Bertan, inprobisazio musikalak, dantza, jolasak, gorputzaren adierazpena eta elkarren arteko harremanak landuko dira. Oskar Estangak koordinatutako asteburu interesgarria izanen da. Web orrialdean datu gehiago eskuragai: <https://sortetxea.eus/egonaldiak/>

## Komertzial lan eskaintza

Profil komertziala duen pertsona bat bilatzen da Lekunberrin. Bertan bizitzea beharrezkoa da, batxilergoko, LHko edo antzeko ikasketak izatea eskatzen da, eta merkataritza arloan eta jendaurreko arretan gutxienez 2 urteko esperientzia behar da. CV bidaltzeko eta harremanetan jartzeko, idatzi hurrengo helbide elektronikora: [igormotxobegastaka@mgs.es](mailto:igormotxobegastaka@mgs.es)

## Administrari-ofizialaren lanpostu baten deialdia

Funtzionario araubideko administrari-ofizialaren lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu da Lekunberriko Udaletxean. Informazio guztia web atarian (<https://labur.eus/PDSMU>) edo BOE aldizkarian eskuragarri.

**Albaitaritza**  
baserriarren  
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun  
[www.albaitaritza.com](http://www.albaitaritza.com) · 948 500 343



## ▶ AGENDA

### URRIA

**4-20** - Urak eta Gizakiak Larraun-Leitzaldeko Paisaia Zizelkatu. Astelehenetik-ostiralera, 9:00-14:00etara. Larraungo udaletxeko Gabari Gune Irekian.

**4** - 19:00 Cliford taldearen kontzertua, Lekunberriko Plazaola Kiroldegian. Sarrera doan. Antolatzailea: Nafarroako Gobernua. 19:30 XXXIII Diario Vasco Pilota Txapelketa. Lekunberriko Jaian Jai Frontoian.

**4-12** - 08:00 Pilarreko Amabirjinaren Bederatziur-rena. San Juan Bataiatzailearen Elizatik Pilarreko Basilizaraino.

**5** - 18:00 Ene kantak dantzan Mailoperen alde. Lekunberriko kiroldegian. Mailope Aldizkarirako laguntza.

**6** - 11:00 Jardunaldi Mikologikoa. 14:00 Perretxiko eta onddoen mota ezberdinen erakusketa. Onddoz egindako pintxoak Herriko Enparantzan. Antolatzailea: Ttuturre Kirol elkarte.

**11** - 12:00 Zapotxin pailazoa, Lekunberriko Printzan.

**13** - 11:00-14:30 Mendialdea Azoka Ibiltaria, Areson.

**18** - "Bularretik ehundutako aitortzak" dokumentalaren estreinaldia, Leitzako zinema aretoan. 2 emanaldi egingo dira, 18:00etan lehena eta 20:00etan bigarrena.

**19** - 09:30 Bularreko minbiziaren aldeko martxa solidarioa Leitzan. Martxa luzea 7,5 km-koa izanen da, eta martxa motza herria inguratuz egingen da. Izena emateko eta kamiseta lortzeko, egunean bertan.



**19** - Martin Goikoetxea bertsolari gorritiarrari bertso afari omenaldia, Gorritiko Kontzejuko gelan. Honako bertsolariek hartuko dute parte: Xebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Julio Soto eta Martin Goikoetxea. Afaria 25 euroan emanen da. Izen-ematea urriak 15a baino lehen: Haize Txulo elkarteko zerrendan edo 687062999 telefonon.

### AZAROA

**8-11** - Aldatzeko festak

**8-11** - Gaintzako festak

**Iñigo Garaioa**  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
LEKUNBERRI

**OGI-BERRI ALTZA**

Aralar kalea, 41  
Lekunberri



OGI BERRI  
OKIN ARTISAUAK 948604884

**TAXILON**



Lontxo Otamendi Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitx

## PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia 948 210 103  
mailope@labrit.net



serigrafia  
diseinua  
estanpazioa

kaixo@gko.eus 606 228 234

# Lekunberriko festak

## URRIAK 9, ASTEAZKENA TXUPINAZOA

11:00 Jubilatuen Meza, San Juan Bataiatzailearen Elizan.  
14:00 Jubilatuen Bazkaria, Ayestaran Hotelean. Ondoren, dantzaldia.  
17:00 Koadrillen arteko desafioa (herri kirolak), izen-emateak urriaren 7ra arte Udaletxe aurrealdean.  
18:00 2024ko Festetako kartel lehiaketaren sari-ematea, Udaletxe Batzar Aretoan.  
18:30 Festetara deia, Txalapartarekin.  
19:00 Txupinazoa, ondoren, otamen herrikoia Herriko Enparantzan Kalez kalea Iraunkorrek Txarangarekin.  
20:30 Zezensuzkoa, Alde Zaharrean.  
22:00 Gazte Afaria, txartelak salgai Mitxausenean urriaren 2ra arte (16€) Herriko Enparantzan.  
00:30 Eztitan, Herriko Enparantzan.

## URRIAK 10, OSTEAGUNA HAURREN EGUNA

9:30 Goizeko soinua, Txistulari taldeak emana.  
10:00-13:00 / 16:00-18:00 Beigorri Parkea eta rokodromoa gazteentzat. Izena eman Kultura Sailan urriaren 9ra arte Kirolgunean. Txu-txu trenan Alde Zaharretik bertara.  
11:00 2023an jaiotakoei ongi etorria, Udaletxe Batzar Aretoan.  
12:00 Txupinazo Txikia, Aralar Musika Eskola eta Martillotxiki Batukadak girotua. Konpartsako Kilikiak.  
12:15-14:00 / 17:00-19:00 Puzgarriak eta haurrentzako jolasak, kiroldegian.  
17:00 Pilota partiduak. Pilota Eskolako txikiak Jaian Jai Frontoian.  
17:00 Poker Txapelketa, Udaletxean.  
18:00 Karaokea, Gizarte Etxean.  
18:00 AtsaldeON! eta Txapela jaurtiketa. Ainhoa tabernaren ondoan: DJ Iñigo Etxenike.  
19:00 Xaibor Diskofesta, haurrentzako dantza-saioa, Herriko Enparantzan.  
19:00 Aralar Musika Eskolako trikitalarien kalez kalea.  
21:00 Zezensuzkoa, Aralar Kalean.  
Gauetz festa tabernetan: Ilargin, Kantinan eta Lekuonberrin.

## URRIAK 11, OSTIRALA HERRI BAZKARIA

9:30 Goizeko soinua, Txistulari taldeak emana.  
11:00 Haurren Krosa, izen ematea bertan 10:30ean Alde Zaharrean.  
12:00 Kalez kalea Iraunkorrek Txarangarekin, Alde Zaharretik irtenda.  
13:00 Tortilla Lehiaketa, Euskalduna taberna inguruan.

14:30 Herri Bazkaria, txartelak salgai Gizarte Etxean eta Mitxausenean urriaren 4ra arte (10€). Bazkalostean, musika eta bingoa Herriko Enparantzan.  
16:00-18:00 Gazteentzako laser-ball jolasak, 12-16 urte bitarte, Beigorri Parkean.  
18:30 Puro Relajoren emanaldia, Herriko Enparantzan.  
20:00 La Farruka Batukada, Alde Zaharretik irtenda.  
21:00 Zezensuzkoa, Aralar Kalean.  
00:00 Zea Mays, DJ Jaikide. Herriko Enparantzan.

## URRIAK 12, LARUNBATA PILAR EGUNA – KALDERETEAK

9:30 Goizeko soinua, Txistulari taldeak emana.  
11:00 Meza Nagusia, San Juan Bataiatzailearen Elizan.  
11:30 Erraldoi eta Kilikiak, Alde Zaharretik irtenda.  
12:00 Agurra eta Bandera-dantza. Ondoren, erraldoien dantza eta kalejira Udaletxean.  
12:30 Euskal dantzen erakustaldia. Tirikitrauki Dantza Taldearekin Udaletxe aurrealdean.  
14:30 Kalderete Lehiaketa, Herriko Enparantzan.  
15:30 4x4 Trial Erakustaldia, poligonoan.  
17:00 Pilota: eliteko partiduak. Emakumezkoak palan eta gizonetzkoak esku-pilotan, Jaian Jai Frontoian.  
17:00 Mus Txapelketa, Gizarte Etxean.  
17:30 Elektrotxufila Elektrotxaranga, Alde Zaharretik irtenda.  
18:00 Txoborro Magoaren emanaldia, Udaletxearen alboan.  
18:00 AtsaldeON! Ilargi Tabernan: DJ Oixani.  
19:30 Bertso-saioa, Herriko Enparantzan.  
21:00 Zezensuzkoa, Aralar Kalean.  
00:00 DJ Bambola – DJ Oixani, Herriko Enparantzan.

## URRIAK 13, IGANDEA AZKEN EGUNA

10:00 Goizeko soinua, Txistulari taldeak emana.  
11:30 Erraldoi eta Kilikiak, Alde Zaharretik irtenda.  
12:00 Haurrentzako puzgarriak, Alde Zaharrean.  
12:30 Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketaren Kanporaketa, Udaletxe aurrealdean.  
12:30 Kantuz, Herriko Enparantzatik irtenda.  
17:00 Pilota partidu profesionalak, Jaian Jai Frontoian.  
19:00 Joselu Anaiak, Herriko Enparantzan.

\*Urriaren 9tik 14ra FERIAGUNEA egonen da frontoiko apar-kalekuan. 14an prezio herrikoien eguna izanen da.